



**Aniztasuneko II Foru Plana
Eskubide Berdintasuna**

Aniztasunetik eraikiz 2

**Giza Eskubideetako eta Kultura
Demokratikoko Zuzendaritza**



1948. urtean Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen. Adierazpen horrek pertsona guztien berdintasuna goraipatzen du. Gure mundu modernoan hainbat hobekuntza izan dira pertsona guztien berdintasunaren alde, esparru ugarian: legerian, gizartean eta ekonomian. Hala ere, badira gure lurraldean ere, pertsonen duintasunaren kontrako jarrerak. Horrela gertatzen da pertsona hainbat arrazoirengatik diskriminatzen dugunean: jatorria, etnia, kultura, erlijioa, genero identitatea edo sexu orientazioa, ideologia, hizkuntza edo gaitasunak, adibidez.

Nola eraiki orduan giza eskubideetan oinarritutako eta kohesio soziala helburu duen Gipuzkoa berdina eta bazterkeriarik gabekoa?

Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasuna bultzatzeko apustu sendoa egin du lurraldean eta uste du diskriminazio eza izan behar dela gizartea kohesionatzeko eta bizikidetzara bultzatzeko giltzarria eta funtsezko euskarria. Aniztasunaren kudeaketa positiboa egin nahi du. Hau da, aniztasuna balioan jarri eta aniztasun horrek ez duela diskriminazioa eragiten bermatu.

Ikastetxeetan ere aniztasun hori bermatzeko lana etengabea da eta

hori indartzeko asmoz, osagarria izan daitekeen “Aniztasunetik Eraikiz” proposamena sortu du. “Aniztasunetik Eraikiz” proposamena hiru ikasturteko proposamena da. DBH2n hasiko dira ikasleak gaia lantzen eta DBH4n amaituko dute. Hiru ikasturte horietan, giza eskubideak oinarritzat hartuta, inguruko aniztasunera gerturatuko dira, bertan ematen diren diskriminazio egoerak identifikatuko dituzte eta horien aurrean begiak itxi beharrean, eraldaketarako proposamenak landuko dituzte.

Lehenengo urtean diskriminazio egoerak jasaten dituzten pertsonak ezagutu genituen eta gure ikastetxean, auzoan edo herrian ditugun diskriminazio egoerei begira jarri ginen. Ikusitakoa eta ikasitakoa beste batzuei ere kontatu genien, beraiek ere diskriminazio egoera horien berri izan eta aniztasuna balioan jarri dezaten.

Bigarren ikasturte honetan Gipuzkoako elkarte batzuk giza eskubideen inguruan egiten duten lana gertutik ezagutuko dugu eta beraiekin elkarlanean aritzeko gonbitea ere jasoko dugu. Beraiekin batera, giza eskubideen aldeko gure konpromisoa herrian gauzatuko dugu, hitzetatik ekintzara pasako gara eta gu ere giza eskubideen aldeko aktibista bihurtuko gara, gizarte justuago bat lortzea guztion zeregina delako.



Aniztasunetik eraikiz

06. Orr.
**Proposamenaren
aurkezpena**

08. Orr.
Kronograma




11. Orr.
Aztertu



20. Orr.
Sentitu



28. Orr.
Konprometitu



36. Orr.
Eranskinak



Hiru ikasturteko proposamenaren aurkezpena

Ikasturte bakoitzean lan-ildo batean jarriko da fokua (aniztasuna, giza eskubideak eta gorroto mezuak) eta gaitasun bat landuko da nagusiki (enpatia, parte-hartzea eta sormena). Lanerako metodologia aldetik hiru atal bereiziko dira (aztertu, sentitu eta konprometitu).

Helburu orokorra

Ikasleek beren inguruan bizi duten aniztasuna ezagutu eta balioan jarri dezatela guztiontzat giza eskubideak aldarrikatzeko pausoak emanez gertuko eragileekin elkarlanean.

LAN-ILDOAK ETA IKASTURTEA	ATALAK	HELBURUAK	METODOLOGIA
LEHEN IKASTURTEA (DBH2) ANIZTASUNA ETA ENPATIA	Aztertu	Aniztasunaren esanahia ulertzea.	Dinamikak, bideoak, solasaldiak...
	Sentitu	Diskriminazio egoerak bizi dituzten pertsonen sentipenak ezagutzea eta barneratzea.	Testigantzak eramatea gelara beren bizipenak kontatzera.
	Konprometitu	Herriko aniztasunaz jabetzea eta balioan jartzea.	Ikastetxeko eta herriko aniztasuna islatzen duten edukiak sortzea eta zabaltzea.
BIGARREN IKASTURTEA (DBH3) GIZA ESKUBIDEAK ETA PARTE-HARTZEA	Aztertu	Giza eskubideen inguruko hausnarketa sustatzea.	Dinamikak, bideoak, solasaldiak...
	Sentitu	Giza eskubideen alde lana egitearen beharraz jabetu eta nola egin daitekeen ezagutzea.	Elkarteak eramatea gelara giza eskubideen ikuspegitik beren lanaz eta motibazioez hitz egiteko.
	Konprometitu	Giza eskubideen alde lan egitearen esperientzia bizitzea.	Sentsibilizazio ekintzaren bat garatzea herrian elkarteren batekin elkarlanean.
HIRUGARREN IKASTURTEA (DBH4) GORROTO MEZUAK ETA SORMENA	Aztertu	Diskriminazioa eta gorrotoa sortzen duten mezuen aurrean jarrera kritikoa lantzea.	Komunikabideetan, sare sozialetan... gorrotoa sortzen duten mezuak identifikatzea eta aztertea.
	Sentitu	Giza eskubideen alde lan egiteagatik hainbat pertsonak jasaten dituzten egoerak ezagutzea.	Giza eskubideen alde lan egiteagatik ondorio kaltegarriak jasan dituen pertsonaren bat gelara eramatea.
	Konprometitu	Aniztasunaren eta giza eskubideen aldeko mezu positiboak sortu eta komunikatzea.	Aldundiak edo udalek bultzatu dezaketen kanpaina baterako edukiak, jarduerak... sortzea eta kanpaina parte hartzea.



Bigarren ikasturtea

Iraila

Aurkezpena

Aurkezpen saioa ikastetxeetako ordezkariekin.

Urria - Azaroa

Aztertu

1.1
Giza eskubideak ez dira jolasa.

1.2
Urrats bat aurrera.

1.3
Giza eskubideak historian zehar.

1.4
Eskubideen urraketak, gaur eta hemen.

Abendua - Urtarrila

Sentitu

2.1
Giza eskubideen aktibistak.

2.2
Elkarteak giza eskubideen aldeko lanean.

2.3
Elkarteak gure gelan.

Otsaila - Martxoa

Konprometitu

3.1
Konpromiso jardueraren diseinua.

3.2
Konpromiso jardueraren prestaketa.

3.3
Konpromiso jardueraren gauzatzea.

Apirila

Ebaluazioa

4.1
Ebaluazioa eta ospakizuna.

*

Saio guztiak ikastetxe bakoitzeko irakasleek garatuko dituzte, baina prozesu osoan zehar prozesua bideratzen lagunduko duen erreferentziazko dinamizatzailearen laguntza izango dute.

Erreferentziazko dinamizatzailea arduratuko da elkarteak ikastetxera eramateaz.

Ikastetxe bakoitzaren erritmoa eta denborak desberdinak direnez, programa malgutasunez garatzeko aukera emango zaio ikastetxeari, betiere proiektuaren dinamizatzailearekin aldeztuz eta adostuz eta koordinatuz.



1 Aztertu

Lehenengo atal honetan giza eskubideetara gerturatuko gara. 1958an onartu zen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko lehenengo artikulua dio gizaki guztiak askeak garela eta eskubide berberak ditugula jaiotzen garenean. Baina errealitatean, hori ez da horrela eta guztiok ez ditugu aukera berdinak. Urtetako borrokari esker, berdintasunerako bide horretan aldaketa batzuk lortu dira, baina gaur eta hemen oraindik ere giza eskubideen urraketak ematen dira.



1.1

Giza eskubideak ez dira jolasa

Helburua:

Giza eskubideen inguruko hainbat adierazpen daudela ohartzea eta gure herrian giza eskubideen alde lan egiten duten erakunde batzuk ezagutzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00 Sarrera

Aurtengo saioak hasi baino lehen, aurreko ikasturtean landutakoaren inguruan zer gogoratzen duten galdetuko diegu. Lehengo urtean aniztasuna eta diskriminazio egoerak landu genituen bezala oraingoa aniztasuna giza eskubideen ikuspegitik landuko dugu.

Hasteko, giza eskubideen inguruan egin diren adierazpen eta aldarrikapen desberdinak daudela ikusiko dugu eta gure erkidegoan diren hainbat erakunde aipatuko ditugu.



00:10 Giza eskubideen inguruko galdeketa

Lau taldetan banatuko ditugu ikasle guztiak eta giza eskubideen inguruko 10 galdera egingo dizkiegu pendrivean dugun power point-aren laguntzaz. Galdera bakoitzak lau erantzun posible izango ditu, 1etik 4ra zenbatuak eta bakoitza kolore batean idatzia dago. Talde bakoitzak koloretako lau txartel izango ditu (urdina, gorria, berdea eta laranja). Koloretako txartelak ez baditugu, zenbakidun txartelekin egin dezakegu.

Irakasleak, galderak dituen power point-a proiektatuko du eta galderak egiten hasiko da banan banan. Talde bakoitzak 20-30 segundu izango ditu galdera bakoitzaren inguruan erantzuna adosteko. Ondoren, irakasleak esaten duenean, talde guztiak batera, erantzunari dagokion txartela altxa beharko dute eta talde bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio.

Bi edo hiru taldek asmatu badute erantzuna, bi puntu emango dizkiogu erantzuna asmatu duten taldeei. Talde guztiak asmatu badute, puntu bakarra jasoko du talde bakoitzak. Talde bakarrak asmatzen badu, hiru puntu jasoko ditu asmatu duen taldeak eta besteek, ez dute punturik jasoko.

Galdera bakoitzaren puntuak banatu ondoren, irakasleak **1. eranskinean** dituen erantzunen inguruko azalpenak emango ditu eta ikasleekin solasaldia ireki dezake. Galdera guztiak erantzun ondoren puntu gehien lortu dituen taldea giza eskubideen inguruko jakintsu taldea bezala izendatua izango da.

1. eranskina: galderen erantzunak eta azalpena

00:30 Solasaldia

Giza eskubideen inguruan zerbait gehiago sakontzeko solasaldia ireki dezakegu. Eztabaidarako baino, gaiaren inguruan dituzten zalantzak edo galderak jasotzeko une egokia izan daiteke. Ateratzen diren gaiak, zalantzak, kezak... apuntatu egingo ditugu eta hurrengo saioetan erantzuten saiatuko gara edo horren inguruan informazioa lortu dezaten ere proposatu diezaiekegu.

00:45 Abestia: “Giza eskubideak dira gure tresnarik onena”. Ariketa osagarria

Denbora badugu, pendrivean dugun “Giza eskubideak dira gure tresnarik onena” abestia entzungo dugu eta giza eskubideak, bere argi eta ilunekin, zertarako tresna diren komentatuko dugu. Aurreko solasaldia osatzeko edo sakontzeko lagungarri izan daiteke.

1.2

Urrats bat aurrera

Helburua:

Eskubideak guztiontzat berdinak izan arren, guztiok aukera berdinak ez ditugula ohartzea. Horretan eragiten duten faktoreak identifikatzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00 Sarrera

Dinamika hau “**Compass. Gazteak Giza Eskubideetan Hezteko eskuliburua**”tik aterata dago.

Ariketa hau egiteko espazio zabala beharko dugu. Areto batean, mahai eta aulkirik gabeko gela batean edo aire librean egin dezakegu.

Ikasle guztiak ilara zabalean jarriko dira bata bestearen ondoan eta aurreraka mugitzeko nahiko leku izan beharko dute. Hemendik aurrera ariketa isiltasunean egin behar da.

Irakasleak, **2. eranskin**eko rol bat banatuko dio ikasle bakoitzari eta inork ez dio esango inori zein den bere rola. Ondoren, bakoitzak bere paperean sartu beharko du eta horretan laguntzeko irakasleak hainbat galdera egingo ditu. Ikasle bakoitza, isiltasunean, galderen erantzunak pentsatzen eta bere pertsonaia sortzen joango da. Hau egiten den bitartean musika lasai bat jartzea lagungarria izan daiteke.

- Nolakoa zen zure haurtzaroa? Zerekin jolasten zenuen? Nolakoa zen zure etxea? Zertan egiten zuten lan zure gurasoek?
- Eta orain, zenbat urte dituzu? Nolakoa da zure bizitza? Zer egiten duzu goizetan? Eta arratsaldetan? Eta gauez? Norekin ibiltzen zara?
- Zenbat diru irabazten duzu hilean? Non bizi zara? Zer egiten duzu zure denbora librean? Eta oporretan?
- Zerk pozten zaitu? Eta zeren beldur zara?

0:15 Dinamikaren garapena

Ikasleak beren paperean sartu direnean, irakaslea **2. eranskin**eko egoera edo gertaerak banaka irakurtzen hasiko da. Segundo batzuk utziko ditu ikasleek erantzuna pentsa dezaten. Erantzuna baiezkoa bada, pauso bat egin beharko dute aurrera. Ezezkoa bada, ez dira mugituko. Hau ere isiltasunean egingo da.

00:30 Solasaldia

Egoera eta gertaera guztiak amaitu ondoren, ikasle bakoitza dagoen tokian geratuko da, eta besteak non dauden begiratuko du. Nahi izanez gero, dauden tokian eseri daitezke. Dauden tokian mantenduz, solasaldiarekin hasiko gara.

Hauek dira lagungarriak izan daitezkeen galdera batzuk:

- Nola sentitu zara ariketa egiten? Nola sentitu zara zure paperean?
- Nola sentitu zara pauso bat eman duzunean? Eta eman ezin izan duzunean?
- Zergatik daude batzuk besteak baino aurrerago edo atzerago? Loturarik badu honek giza eskubideekin?
- Asmatuko zenituzkete bakoitzaren rola edo zein rol mota duten? Ondoren bakoitzak bere rola komentatu dezake.
- Erraza edo zaila egin zaizu rol horretan jartzea? Norentzat (zein rol mota) izan da errazagoa edo zailagoa? Gustura egon zara zure rolean? Zergatik?
- Zein giza eskubide zeuden jokoan? Horietakoren bat urratua sentitu duzu? Edo ukatua zuretzat?
- Ariketa bukaeran bakoitzak duen lekua gizartearen adierazgarri al da?
- Zer egin daiteke egoera honi buelta emateko?

00:50 Aukera berdintasuna. Ariketa osagarria

Aurreko solasaldiari emango diogu lehentasuna. Denborarik badugu, **2. eranskin**eko marrazkia erakutsiko diegu eta landutako dinamikarekin zer ikusirik duen galdetuko diegu.

- Zer esan nahi du marrazkiak? Jarri dieten lana egokia da? Aukera berdinak dituzte animalia guztiek? Bidezkoa da? Noizbait sentitu zarete horrelako egoera batean?

1.3 Giza eskubideak historian zehar

Helburua:

Giza talde desberdinek, historian zehar eta gaur egun ere, jasaten dituzten eskubide urraketak ezagutzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00 Sarrera

Aurreko saioan egokitu zitzaizkigun rola gogoratuko ditugu. Euren bizitzak asmatzerakoan, zertan oinarritu ziren galdetuko diegu (ezagutzen duten norbaitengan, egunkarietan irakurritakoan, telebistan edo pelikularen batean, imajinazioa...).

Giza talde horietako pertsonen bizipenak hobeto ezagutzeko bideo labur batzuk ikusiko ditugu.



00:10 Bideoak ikusi

Hainbat gizatalderen eskubideen inguruan historian zehar egon diren aldaketak erakusten dituzten bideo hauek ikusiko ditugu. **Bideo guztiak pendrivean daude.**

Gaia: Ijitoak

Izenburua: [En España, la lucha contra el antigitanismo](#)

Iraupena: 5 minutu

Gaia: Desgaitasuna

Izenburua: [Historia de la discapacidad](#)

Iraupena: 6 minutu

Gaia: LGTBI

Izenburua: [La historia LGTB contada por el colectivo](#)

Iraupena: 7 minutu

Gaia: Errefuxiatuak

Izenburua: [ACNUR: quiénes somos](#)

Iraupena: 6 minutu



00:40 Solasaldia

Bideoak ikusi ondoren solasaldia sustatuko dugu. Honako galdera hauek solaserako lagungarri izan daitezke:

- Zerk eman dizu atentzioa? Zer izan da berria zuretzat?
- Zer azpimarratuko zenuke? Zein ondorio ateratzen dituzu?
- Egoera asko aldatu dela esango zenuke? Aipatutako giza talde guztientzat aldaketak berdinak izan dira?
- Aurreko ariketan (rol jokoan) eraiki zenuen pertsonaia errealista izan zen edo zerbait aldatuko zenuke bideoak ikusi ondoren?

1.4 Eskubideen urraketak, gaur eta hemen

Helburua:

Egunerokoan ematen diren giza eskubideen urraketak identifikatzeko gai izatea eta horren ondorioez jabetzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00 Sarrera

Lau talde egingo ditugu eta talde bakoitzari honako hauek emango dizkiogu: egunkari bat eta **3. eranskina**. Bertan, ariketa osatzeko taula bat eta giza eskubideen adierazpen unibertsaleko artikulua zerrendaren laburpena daude. Hauek ez dira 30 eskubide, 30 artikulua baizik. Askotan egiten den akatsa da eta hori adieraztea komenigarria da.



00:10 Egunkariak arakatu

Egunkariko bi edo hiru berri aukeratu beharko dituzte eta bertan ematen diren giza eskubideen urraketak zeintzuk diren identifikatuko dituzte. Eman zaien taula osatuko dute.

00:35 Solasaldia

Talde bakoitzak, aukeratu dituen berriak zeintzuk izan diren adieraziko du, zein eskubide urraketa egon diren eta urraketa horiek pertsonengan izan dituzten ondorioak.

Aurreko saioetan landutako gaiak gogoratu ditzakegu (urraketan eragiten duten faktoreak, aukera berdintasunaren falta, giza talde kaltetuenak, pertsonengan dituzten ondorioak...) eta atal hau borobildu.



2 Sentitu

Giza eskubideen urraketen aurrean bada isilik geratzen ez den jendea, giza eskubideak guztienak direla edo ez direla izango sentitzen dute. Horietako batzuk mundu mailan ezagunak dira aurrera eramán duten borrokarengatik eta kasu askotan euren bizitzarekin ordaindu dute. Baina oso urruti joan gabe, gure herrian ere baditugu giza eskubideen alde lan egiten duten pertsonak eta elkarteak. Beren motibazioak ezagutzea ezinbestekoa da beren konpromisoa ulertzeko.





2.1 Giza eskubideen aktibistak

Helburua:

Munduan zehar giza eskubideen alde lan egin duten pertsonak ezagutu eta giza eskubideen aldeko konpromisoa balioan jartzea.

Iraupena:

50 minutu

00:00 Sarrera

Lauko taldeak antolatuko ditugu eta giza eskubideen alde lan egiten duten hainbat pertsona ezagutzeko gonbidapena luzatuko diegu.

00:10 Aktibista bat ezagutu

Talde bakoitzari giza eskubideen alde lan egiteagatik ezaguna izan den norbaiten izena emango diogu eta beraien inguruko informazioa bilatu beharko dute. Pertsona bakoitzarekin honako galderak izan daitezke lagungarri. Wikipedia erabiliz atera ditzakete hainbat datu interesgarri.

- Non eta noiz jaio zen?
- Zeren alde borrokatu zuen? Zergatik? Edo zeren edo noren aurka?
- Nola garatu zuen borroka hori?
- Zeintzuk izan ziren borrokaren ondorioak? Beretzat edo gizartearentzat.
- Aldaketak suposatu ditu? Hobekuntzak?

Hemen, izen batzuk proposatzen dira baina irakasleak edo ikasleek aukeratu ditzakete beraien nahi dituztenak. Garrantzitsuena ez da pertsona bakoitza, baizik eta giza eskubideen alde egin duten lana, motibazioak eta horren ondorioak, lorpenak... zeintzuk izan diren ezagutzea.

Harvey Bernard Milk. Malala Yousafzai. Berta Caceres. Steve Biko. Atena Daemi. Nelson Mandela. Wangari Maathai. Rigoberta Menchu. Ignacio Ellacuria...

00:30: Solasaldia

Talde bakoitzak, **minutu batean** berak ikertutako pertsona nor zen kontatuko die beste taldeei eta ondoren solasaldia irekiko dugu.

- Zer zuten komunean pertsona guztiek?
- Norentzako onurak bilatzen dituzte?
- Merezi du bere lanak?
Zer pentsatzen duzu hori egiten duen pertsonaz?

Ariketa osagarria

Saio honi etekin gehiago atera nahi izanez gero, aktibista bakoitzarekin panel bat sortu daiteke eta **erakusketa bat antolatu ikastetxean**. Hurrengo atalean garatuko den konpromiso jardueraren osagarri ere izan daiteke, adibidez, herriko kultura etxean erakusketa jarriz eta bisita gidatuak antolatuz herritarrentzat.





2.2 Ikarteak giza eskubideen aldeko lanean

Helburua:

Euskal Herrian giza eskubideen alde lan egiten duten talde batzuk ezagutzea eta bere garrantziaz jabetzea.

Iraupena:

55 minutu

00:00 Euskal Herrian giza eskubideen alde lan egiten duten talde batzuk ezagutu

Euskal Herrian talde asko dira giza eskubideen aldeko lanean. Honako bideo labur hauetan sei taldek beren lanaren aurkezpena eta zergatia azalduko digute.

Talde horietakoren bat edo beste gelara etorriko da hurrengo saioan. Saio batean agian ez dugu bideo guztiak ikusteko eta komentatzeko denborarik izango. Beraz, saio bakarra egiten badugu, gelara etorriko ez diren taldeen bideoei emango diegu lehentasuna, horrela elkarte guztiek egiten dutena ezagutzeko aukera izango dugu, batzuk bideoen bidez, besteak gelan.



GAUTENA

Autismoaren Espektroko Nahastea duten pertsonen senideen elkarte da. Helburua, familia hauei laguntza eta aukera egokiak eskaintzea da, bizi-kalitate ona izan dezaten inklusioaren alde egiten duen gizarte batean.



BEGISARE

Euskal Herrian kokaturiko hiru elkarte dira, helburu komun batekin: "Erretinako distrofia hereditarioek eragindakoen bizi-kalitatea hobetzea". Gizartearen sentsibilizazioa eta ikerketa dira beren beste helburuak.



SALVAMENTO MARITIMO HUMANITARIO

2015etik aurrera, Mediterraneoan bizi den krisi humanitarioari erantzuna ematen ari den ekimena da. 2017an, itsas erreskatearen proiektua martxan jartzea erabaki zuten, Aita Mari - Maydayterraneo proiektua.



ZEHAR ERREFUXIATUEKIN

Bere misioa giza eskubideak defendatzea eta sustatzea da, eta nazioarteko babes behar duten eta/edo baztertuak izateko arriskuan dauden errefuxiatuen, lekualdatuen, aberrigabeen eta migratzaileen garapen osoa bultzatzea.



GEHITU

Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen elkarte da. Bere helburua: gay, lesbiana, bisexual eta transexualek dituzten eskubideak oso-osorik ontzat hartuak izatea, beren sexu-afektibitatea garatu ahal izateko beharrezkoa baitute merezi dituzten duintasunaz eta berdintasunaz gozatzea, hala nola orientazio sexualean edota nortasun transexualean oinarrituriko gizarte- eta lege-bazterketa orori amaiera ematea.



KALE DOR KAYIKO

Irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde modernoa eta anitza da. 1989an sortu zen eta gizarte-eraldaketa eragiten dute, ijitoek gainerako herritarren eskubide eta betebeharrak berberetan bizi daitezen. Beren komunitatea bizitzako esparru guztietan ahalduzko, prestakuntza akademikoa, parte-hartze soziala eta balioetan oinarritutako hezkuntza funtsezko zutabeak direla uste dute.



00:40 Solasaldia

Bideoak ikusi ondoren solasaldia irekiko dugu.

- Ezagutzen zenituen talde hauek? Zerk eman dizu atentzioa?
- Antzeko talderen bat ezagutzen duzu herrian? Zer egiten dute?
- Nola baloratzen duzu euren lana? Beharrezkoa da?
- Zer gertatuko litzateke horrelako talderik ez balego?
- Giza eskubideen aldeko talderen batean parte hartzen duen norbait ezagutzen duzu?
- Horrelako talderen batean parte hartu nahi zenuke aurrerantzean? Zergatik?

Denbora izanez gero, hurrengo saioan gelara etorriko diren taldeentzako galderak prestatuko ditugu. Herriko talderen bat ere gonbidatu dezakegu hurrengo saiora.

Ariketa osagarria: “Martxa baten lehen notak”

Mikel Laboaren “**Martxa baten lehen notak**” abestia entzungo dugu. Giza eskubideen alde lan egiten duten elkartearen garrantzia aldarrikatzeko eta bertan lanean ari diren boluntarioen lana balioan jartzeko egokia izan daiteke.

Jarduera hau edozein unetan egin daiteke atalaren osagarri modura. Abestia ezaguna da eta Interneten erraz aurkituko dugu.

2.3 Elkarteak gure gelan

Helburua:

Elkarteak gehiago ezagutu eta elkarrekin garatu beharreko proiektua adostea.

Iraupena:

120 minutu

Ahal izanez gero bi orduko saioa antolatuko dugu. Lehenengo orduan ikasle guztiak batera egongo dira elkarteetako kideei entzuteko. Bigarren orduan bitan banatuko dugu taldea eta gela bakoitzak proiektu bat landu dezake elkartearekin. Bigarren zati hau, “Konprometitu” ataleko 3.1 jarduera da.

00:00 Aurkezpena

Bi edo hiru elkarteetako kideak izango dira gelan (horietako bat herrikoa izan daiteke). Bakoitzak 15 minutu izango ditu bere elkartearen aurkezteko.

00:45 Ikasleekin solasaldia

Ikasleen galderak eta zalantzak argituko dituzte elkarteetako kideek eta solasaldia sustatuko dugu euren lanaren eta motibazioen inguruan.

01:00 Proiektuaren diseinua

3.1 jarduerako atalak lantzen hasiko gara elkartearekin batera.

Ikasle bakoitza bere gelara joango da eta beraiekin batera elkarte bat egongo da saioa amaitu arte. Elkartearekin garatu behar dugun jardueraren diseinua adosten hasiko gara. Elkarteak bere proposamena sakonago aurkeztuko digu eta ikasleen iritzia eta ideiak jaso ondoren, behin betiko proiektua adostuko dugu eta aurrera eramateko eman beharreko pausoak zehazten hasiko gara.

3 Konprometitu

Giza eskubideek duten garrantzia landu dugu eta ikusi dugu historian zehar eta gaur egun ere giza eskubide horiek guztiontzat bermatu daitezela, hainbat pertsona eta elkarte lanean ari direla.

Elkarte batzuk izan ditugu gelan eta laguntza eskatu digute. Guk ere giza eskubideen aldeko aktibista bihurtzeko aukera dugu orain eta giza eskubideak guztiontzat izan daitezela konpromisoa hartuko dugu.





3.1 Konpromiso jardueraren diseinua

Helburua:

Elkartearekin batera garatu beharreko jarduera definitu eta aurrera eramateko ardurak banatzea.

Iraupena:

45 minutu

00:00 Sarrera

Elkartearen bisita jasotzen dugun egunean, elkartearen aurkezpenaren ondoren ikasle bakoitza bere gelara joango da eta gela bakoitzean elkarte bat egongo da.

Irakasleak **4. eranskinaren** kopia bat eramango du talde bakoitzera, ahal bada A4 eta A3 tamainan. A3koa paretan jarriko du guztion artean betetzen joateko. A3koan idatzitako gauza bera jasoko du ikasleren batek A4koan eta hurrengo saio guztietan aurrean izan beharko dugu.

00:10 Proiektuaren definizioa

Elkarteak proposatzen duen erronkaren inguruan egon daitezkeen zalantzak edo ikasleek egin ditzaketan ekarpenen inguruan solas egingo dugu eta guztion artean hurrengo hiru puntuak adostu eta eranskinean apuntatuko ditugu:

- Helburua: elkarrekin egingo dugun jarduerarekin zer lortu nahi dugun zehaztea.
- Hartzailak: jarduera nori bideratua egongo den zehaztea (helduak, haurrak, herritar guztiak...)
- Deskribapena: jardueraren funtza deskribatu eta idatzi.

00:50 Laburpena

Hitz egindako guztia eranskinean jaso dugula ziurtatuko dugu eta guztia irakurriko dugu guztiok argi izan dezagun.

3.2 Konpromiso jardueraren prestaketa

Helburua:

Jarduera bat prestatzeko eman beharreko pauso guztiak zeintzuk diren ikasi eta ardurak hartzea.

Iraupena:

120-180 minutu

00:00 Sarrera

Aurreko eguneko eranskina irakurritz hasiko dugu saioa.

00:10 Lantaldeak eta bitartekoak

Irakurritakoa entzun ondoren, dauden lan guztiak egiteko lantaldeak era eraginkorrean antolatu beharko ditugu. Horretarako, beharko diren bitartekoak eta sortu behar diren lantaldeak pentsatuko ditugu. Jardueraren arabera desberdinak izango dira, baina adibidez horrelako zerbait izan daiteke:

- Harremanen lantaldea: kanpo harremanak egin eta baimenak lortzea (udalarekin, elkarrekin, ikastetxearekin...)
- Materialen lantaldea: materialak lortzea, erosketak, dekorazioa, atrezzoak...
- Komunikazio lantaldea: egingo den ekintza ezagutzera emateko kartelak, komunikabideekin harremana, sare sozialak...
- Ekintza lantaldea: antolatuko den jardueran parte hartuko duten pertsonekin kontaktuak egin, aurkezpenak, egun horretako beste lanak...
- Dokumentazio lantaldea: egiten den lan guztiaren dokumentazioa jaso (argazkiak, bideoak...) eta bukaeran bideo bat sortu.



00:30 Ardura banaketa eta antolaketa orokorra

Lantaldeak antolatuko ditugu. Aurreko puntuan sortutako lantalderen batean kokatuko da ikasle bakoitza. Lantaldeak egin beharreko lanerako beharrezkoak dituen pertsona kopurua izan beharko du.

Lantalde bakoitzean koordinatzailea edo arduraduna nor izango den zehaztu beharko dugu eta koordinatzaile orokorra ere nor den erabakiko dugu. Koordinatzaile orokorra izango da irakaslearekin batera elkartearekin harremanetan egongo dena.

00:45 Taldekako lana

Lantalde bakoitza bere lana egiten hasiko da. Prozesuan zehar koordinatzaileen bileraren bat egin beharko da jarduera nola doan ikusteko. Diseinatutako jardueraren arabera, taldekako lanaren iraupena aldatu egingo da. Agian, bi edo hiru saio eskatuko ditu kasu batzuetan.



3.3 Konpromiso jardueraren gauzatzea

Helburua:

Prestatu dugun jarduera aurrera eramatea.

Iraupena:

60 minutu

00:00 Jarduera

Prestatu dugun jarduera edo jarduerak garatuko ditugu elkartearekin batera. Kasu bakoitzean iraupena eta formatua desberdinak izango dira. Aktibisten saioa egin genuenean erakusketa sortu bagenuen, ekintza honetan integratu dezakegu jarduera osagarri moduan.

Jarduera aurrera eramaten dugunean, argazkiak atera eta bideo grabaketak egingo ditu lantalderen batek, ondoren ikastetxearen web orrian, elkartearen web orrian, prentsan... egindako lanaren berri emateko.

Tokiko komunikabideak gonbidatu ditzakegu jarduerara hurrengo egunetan jardueraren berri eman dezaten. Ez badira etortzen, guk bidali diezaiekegu jardueraren kronika eta argazki batzuk.

4

Ebaluazioa

4.1

Ebaluazioa eta ospakizuna

Egindako lan guztiari amaiera emateko bi zeregin falta zaizkigu. Batetik ebaluazioa eta bestetik ospakizuna.

Ebaluazioa egiteko garaian, ikasle bakoitzaren ebaluazioa jasoko da proiektuan emango zaigun galdetegia betez, eta, bestetik, irakasle taldearen ebaluazioa jasoko da.

Ospakizuna ere garrantzitsua da. Egindako lan guztiak errekonozimendu bat merezi du eta hori ospakizun moduan egingo dugu. Taldeak berak erabakiko du nola egin. Parte hartu duten guztiak gonbidatu ditzakegu ospakizunera, ikasle eta irakasleak, elkarteko kideak, udaleko ordezkariak... Ez du gauza handia izan behar. Prozesuaren inguruan egin dugun bideoa ikusteko aprobetxatu dezakegu saioa.



I. Eranskina

1. Zein urtetan onartu zen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala? 1948

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala munduan adostuta dagoen dokumentu garrantzitsu bat da, gizaki guztiok ditugun eta mundu guztiak errespetatu behar dituen giza eskubideei buruzkoa. Munduko Estatu gehienak bertan esaten dena betetzearen alde agertu dira. Munduko Estatuak ikuspegi politiko eta erlijioso oso bestelakoak badituzte ere, dokumentu honek gaur egungo kultura gehienetako balore komunak biltzen dituela esaten da.

Historia: 1948. urtean, Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gero, munduko politikari eta pentsalari asko oso kezkatuta zeuden gertatutakoa ikusita. XX. mendean milioika pertsona hil ziren Lehen Mundu Gerran eta Bigarren Mundu Gerran. Gehienak ez ziren soldadu edo militarrik izan, pertsona zibilak baizik. Horrelako sarraskiak ikusi eta gero, politikariek, kazetariek, pentsalariek oro har, ez zuten horrelakorik berriro ere inoiz gertatzerik nahi. Nazioartean errespetatzeko moduko araudi berri bat sortu behar zutela erabaki zuten. Guztiek errespetatzeko moduko nazioarteko joko-araudi berri bat. Eta araudi hori adostu, idatzi eta guztiek errespetatu beharko zutela pentsatu zuten.

1948. urtean, Parisen, hainbat jatorritako pentsalariren artean adostutako dokumentua bozkatu zen Nazio Batuen Batzar Nagusian.

2. Hauetako zein ez da giza eskubideen ezaugarrietako bat? Hautazkoak dira

Giza eskubideen ezaugarriak: unibertsalak, zatiezinak eta elkarren mendekoak.

Giza eskubide guztiek garrantzi bera dute, eta gobernu guztiek modu justu eta ekitatiboan tratatu behar dituzte, modu berean eta enfasi berarekin. Estatu guztiek dute, beren sistema politiko, ekonomiko eta kulturala edozein dela ere, diskriminaziorik gabeko pertsona guztientzat giza eskubide guztiak sustatzeko eta babesteko betebeharra. Horrek esan nahi du giza eskubideak berdinak direla mundu osoko gizon, emakume eta haur guztientzat, haien egoera edozein dela ere.

I. Eranskina

Giza eskubideak elkarren mendekoak eta zatiezinak dira. Adierazpenaren 30 artikuluek garrantzi bera dute. Inork ezin du erabaki batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direnik. Eskubide bat kentzeak eragin negatiboa du beste guztiengan.

3. Non jaio zen René Cassin? Baiona

René Cassin Baionan jaio zen 1887ko urriaren 5ean. Munduko lehenengo gerratean zauritua izan zen. Zuzenbideko irakaslea izan zen 1968. urtean Bakearen Nobel Saria eman zioten Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala egiten lagundu zuelako. Santiago Ramon y Cajalekin batera, nobel sari bat lortu duen bi euskal herritarretako bat da.

4. Zein da Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna? Abenduak 10

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna abenduaren 10ean ospatzen da, 1948an, Parisen, egun horretan onartu zelako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. 2023an 75 urte beteko dira.

5. Zein urtetan onartu zuen NBEk Haurren Eskubideen inguruko Aldarrikapena? 1959

Haurren Eskubideen Aldarrikapena 1959ko azaroaren 20an onartu zuten aho batez orduan Nazio Batuen Erakundea osatzen zuten 78 estatu kideek eta honen bidez haurren eskubide unibertsalak finkatu ziren. Bertan hamar eskubide jasotzen dira. Horren ondorioz, azaroaren 20an ospatzen da urtero Haurren Eskubideen Eguna.

6. Herrialde horietako zeinek ez du Haurren Eskubideen Hitzarmena berretsi? AEB

Adierazpen horren ondoren, 1989an, 54 artikuluz osatutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zen. Munduko 195 herrialdek sinatu eta berretsi dute eta, beraz, hori betetzera behartuta daude. Aldarrikapenaren eta hitzarmenaren arteko desberdintasun nagusia hitzarmena betetzea nahitaezkoa dela da.



Amerikako Estatu Batuek sinatua dute Hitzarmena baina ez berretsia, hau da, ez daude Hitzarmena betetzera behartuta. Hegoaldeko Sudan da berretsia ez duen beste herrialdea.

7. Nork idatzi zuen Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena? Olympe de Gouges

Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena Olympe de Gougesek 1791. urtean, Frantziako Iraultzaren testuinguruan, idatzi zuen agiri bat da.

Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena, berez, emakumeen aldarrikapenen aldeko alegatua eta giza eskubideen unibertsalizazioaren benetako aldarrikapena da.

Egileak salatu zuen iraultzak emakumeak ahaztu egiten zituela berdintasun- eta askatasun-proiektuan. Defendatzen zuen «emakumea aske jaiotzen dela eta eskubideetan gizonaren berdina izan behar duela», eta «legeak borondate orokorraren adierazpena izan behar duela; herritar guztiek lagundu behar dute, pertsonalki edo ordezkarien bidez, bere prestakuntza». Berdintasunezko tratua eskatzen zuen emakumeenganako, bizitzako arlo publiko zein pribatu guztietan: botoa emateko eta jabetza pribatua izateko eskubidea, hezkuntza eta armadan parte hartu ahal izatea, eta kargu publikoak betetzea, baita familian eta elizan botere-berdintasuna eskatzea ere. Eskubide batzuk bakarrik onartu ziren, baina hori urte batzuk geroagokoa izan zen.

8. Europako zein herrialdetan bozkatu ahal izan zuten emakumeek lehen aldiz 1907an? Finlandia

Europan, emakumeek lehen aldiz erabili ahal izan zuten botoa Finlandian, 1907an, eta parlamentuan eserlekuak izatera ere iritsi ziren (lehen kasua munduan). Ondoren, Norvegia eta Suedia etorri ziren.

1931n, Espainian, 1931ko Konstituzioan, emakumeen boto-eskubidea onartu zen, eta eskubide hori 1933ko azaroko hauteskunde orokorretan erabili ahal izan zuten lehen aldiz izan zen.

I. Eranskinak

9. Hauetako nor ez da Arartekoa izan? Martin Ugalde

Arartekoa edo herriaren defendatzailea hiritarren eskubideak bermatzen dituen Estatuko agintaritzak da, Estatu horren botere exekutiboak edo legegileak hiritarrengan egin litezkeen abusuen aurka jarduten duena. Normalean gobernu edo parlamentu batek izendatzen du arartekoa.

Organo horren arduraduna, karguduna, pertsona independentea izaten da, alderdi politiko, sindikatu eta abarrekiko lotura formalik gabea, eta ez du inongo agintaritzaren agindurik jasotzen bere zereginak betetzeko. Herritarrek arartekoarengana jo dezakete beren kexak idatziz aurkezteko eta kexa horren inguruko jarduerak aurrera eramaten ditu arartekoak, doako zerbitzua eskainiz. Oro har, Bigarren Mundu Gerraz geroztik hasi zen erakunde hau hainbat herrialdetan antolatzen, herritarren eskubideak errespetatzen direla bermatzeko eta administrazioaren jarduerak kontrolatzeko asmoz.

1989tik gaur egun arte hauek izan dira arartekoak: Juan San Martin, Xabier Markiegi, Mercedes Agundez, Iñigo Lamarca, Julia Hernandez eta Manuel Lezartua.

10. Nor da Emakunderen lehendakaria 2013. urteaz geroztik? Izaskun Landaida

Emakunde, Emakumearen Euskal Institutua, Euskal Autonomia Erkidegoko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea helburu duen erakunde ofiziala da.

1981ean, Institutua sortu zenean, helburu bezala ezarri zituen sexuen arteko berdintasuna errazteko bideei bultzatzea, hori bete-betean lortzeko eragozpen izan daitezkeen izateko eta lege aldeko oztopo guztiak desagertaraztea, eta bereizkeria mota guztiak ezabatzea. 2005ean Berdintasunaren Legea onartu zenetik hasierako helburu eta erronkak lortutako aurrerapausoei egokitzen joan da, lehentasunetako bat Berdintasunaren Lege horren betetzearen ardura izanik. Hurbileko erakundea izan nahi du Emakundek, gizartearen eraldatzeko helburua duen proiektu feministaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten guztien helburuekin bat egiten duena. 2013tik aurrera **Izaskun Landaida** da Emakundeko zuzendaria.



II. Eranskina

Rol txartelak

Dinamika: **Urrats bat aurrera**

Erreferentzia: "Compass. Gazteak Giza Eskubideetan Hezteko eskuliburua" (2002)

Ama ezkongabe langabetua zara	Gaur egun boterean dagoen alderdi politikoko gazteen erakunde bateko presidentea zara	Tokiko bankuko arduradunaren alaba zara. Gaur egun ekonomia ikasten ari zara unibertsitatean	Janari lasterreko establezimendu arrakastatsua duen etorkin txinatar baten semea zara
Neskatila arabiar musulmana zara eta zure gurasoekin bizi zara. Gurasoek debozio handia dute beren erlijioarekiko	Bizi zaren herrialdeko enbaxadore estatubatuarraren alaba zara	Lan prekarioa duten gurasoen 18 urteko semea zara	Inportazio eta esportazio enpresa arrakastatsu baten jabea zara
Gurpildun aulkian bakarrik mugi zaitezkeen gazte ezindua zara	Paper-fabrika bateko langile erretiratu zara	Lehen hezkuntza inoiz amaitu ez duen neska ijitoa zara	Artista heroinazale gazte baten neska-laguna zara
Adin ertaineko prostituta zara eta HIESa duzu	22 urteko lesbiana zara	Maliko legez kanpoko etorkina zara	Jatorri afrikarreko modelo zara
Afganistango 24 urteko errefuxiatua zara	27 urteko gaztea zara eta ez duzu etxerik	Irakasle langabetua zara eta ez duzu zauden herrialdeko hizkuntza erraztasunez hitz egiten	19 urteko gaztea zara, urrun dagoen mendiko herri bateko nekazari baten semea
20 urte dituen youtuber ezaguna zara	Lehen mailako talde batean jokatzen duen futbolari senegaldar gaztea zara	Unibertsitateko ikaslea zara. Aste osoa kanpoan bizi zara. Gurasoek ordaintzen dituzte zure gastuak	Unibertsitateko ikasketak amaitu dituzun neska zara. Bi urte daramatzazu taberna batean lanean

II. Eranskina

Egoerak eta gertaerak

Irakurri honako egoera hauek ozenki. Egoera bakoitza irakurri ondoren, egin etenaldi bat parte-hartzaileek urrats bat aurrera eman dezaten eta batzuek besteekiko zenbat urrundu diren ikus dezaten.

Ez duzu inoiz finantza-zailtasun larririk jasan.

Etxe txukuna duzu, telefonoarekin eta telebistarekin.

Bizi zaren gizartean zure hizkuntza, erlijioa eta kultura errespetatzen direla sentitzen duzu.

Gai sozialetan eta politikoetan duzun iritzia garrantzia duela eta zure ikuspegiak entzun egiten direla uste duzu.

Beste pertsona batzuek hainbat gairi buruz duzun iritzia eskatzen dizute.

Ez zara poliziak atxilotuko zaituenaren beldur.

Badakizu nora joan aholku eta laguntza eske behar duzunean.

Ez zara inoiz zure jatorriagatik baztertua sentitu.

Zure beharrei egokitutako babes sozial eta medikua duzu.

Oporretara joan zaitezke urtean behin.

Lagunak etxera afaltzera gonbida ditzakezu.

II. Eranskina

Bizitza interesgarria duzu eta zure etorkizunarekiko positiboa zara.

Ikasi eta zure lanbidea aukeratu dezakezula sentitzen duzu.

Ez duzu jazarpena edo kalean (edo hedabideetan) erasorik jasateko beldurrik.

Tokiko hauteskundeetan eta hauteskunde nazionaletan bozkatzeko eskubidea duzu.

Erlijio-festa nagusiak zure lagunekin eta senideekin ospa ditzakezu.

Atzerrian egingo den nazioarteko mintegi batean parte hartzeko aukera duzu.

Zinemara edo antzerkira joan zaitezke gutxienez astean behin.

Ez duzu beldurrik zure seme-alaben etorkizunagatik.

Jantzi berriak eros ditzakezu gutxienez hiru hilean behin.

Zuk aukeratzun duzun pertsonaz maitemin zaitezke.

Bizi zaren gizartean, zure gaitasunak estimatzen eta errespetatzen direla sentitzen duzu.

Internet erabili dezakezu eta etekina ateratzen diozu.

Aukera berdintasuna

Zer deritzozu?



III. Eranskina

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

- Artikulua 1** Berdintasunerako eskubidea
- 2** Bereizkeriaren debekua
- 3** Bizitarako, askatasunerako eta segurtasunerako norbanakoen eskubidea
- 4** Esklabotzaren debekua
- 5** Torturaren eta tratu lotsarazleen debekua
- 6** Lege nortasunduntzat hartzeko eskubidea
- 7** Legearen aurrean berdintzat hartzeko eskubidea
- 8** Auzitegi aginpidedunetan errekurtsua jartzeko eskubidea
- 9** Arrazoirik gabeko atxiloketaren eta erbesteratzearen debekua
- 10** Entzunaldi publiko eta zuzenerako eskubidea
- 11** Bestelakorik frogatu arte errugabetzat hartzeko eskubidea
- 12** Beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan esku sartzeko debekua
- 13** Nor bere herrialdean eta handik kanpo aske ibiltzeko eskubidea
- 14** Beste herrialde batzuetan babesa izateko eskubidea
- 15** Herritartasuna izateko eta aldatzeko eskubidea
- 16** Ezkontzeko eta familia eratzeko eskubidea
- 17** Jabego pribaturako eskubidea
- 18** Kultu- eta erlijio-askatasuna
- 19** Iritzi- eta informazio-askatasuna
- 20** Bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea
- 21** Gobernuan eta hauteskunde libreetan parte hartzeko eskubidea
- 22** Gizarte Segurantzarako eskubidea
- 23** Lanerako eta sindikatuko kide izateko eskubidea
- 24** Atsedenerako eta aisiarako eskubidea
- 25** Bizimodu egokia izateko eskubidea
- 26** Hezkuntzarako eskubidea
- 27** Komunitateko kultura ekitaldietan parte hartzeko eskubidea
- 28** Aldarrikapen honek arautzen duen gizarte-mailako ordenarako eskubidea
- 29** Aske eta guztiz garatzeko funtsezkoa dena eskaintzen du komunitateak
- 30** Aipatutako eskubideetan estatuak edo edozein norbanakok esku sartzeko debekua

III. Eranskina

BERRIA	ARTIKULUA	URRAKETA	ONDORIOA
1			
2			
3			

IV. Eranskina

Jardueraren taula

IKASTETXEA	GELA	HERRIA
PROIEKTUAREN IZENBURUA		ELKARTEA
HELBURUA		
NORI BIDERATUA		
DESKRIBAPENA		

EGIN BEHARREKO LANAK	NOIZKO	LANTALDEA (taldeak egin ondoren)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		

IV. Eranskina

Lantaldeen taula

LANTALDEA - ZEREGINA	PARTAIDEAK	ARDURADUNA / KOORDINATZAILEA
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		

BEHARREZKO MATERIALAK	





Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza

www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak